









Alfabetatze mediatikoa eta informazio-arlokoa

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak behartzen dituztenak informazio-premiak antolatzen, ingurune digitaletan informazioa eta baliabideak bilatzera, informazioa antolatu, prozesatu, aztertu eta interpretatzera, eta informazioaren eta iturrien sinesgarritasuna eta fidagarritasuna konparatu eta kritikoki ebaluatzen.

Jarduerak

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak motibatzen eta behartzen dituztenak hau guztia egitera:

- ◆ Informazio-premiak adierazi; datuak, informazioa eta edukiak ingurune digitaletan bilatu, atzitu eta aztertu.
- ◆ Norberaren bilaketa-estrategiak sortu eta eguneratu.
- ◆ Bilaketa-estrategiak egokitu, aurkitutako informazioaren kalitatea oinarritzat hartuta.
- ◆ Datuen, informazioen eta eduki digitalen iturrien sinesgarritasuna eta fidagarritasuna aztertu, alderatu eta kritikoki ebaluatu.
- ◆ Datuak, informazioa eta edukiak ingurune digitaletan antolatu, biltegitatu eta eskuratu.
- ◆ Informazioa ingurune egituratu batean antolatu eta prozesatu.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Ikasleen informazio-alfabetatzea sustatzeko estrategiak gutxi erabiltzea .	Ez dut kontuan hartzen nola susta ditzakedan ikasleen informazio-alfabetatzea eta alfabetatze mediatikoa, edo oso gutxitan.
Esploratzailea (A2) 	Ikasleak teknologia digitalak erabiltzera bultzatzea informazioa eskuratzeko.	Ikasleak teknologia digitalak erabiltzera bultzatzen ditut informazioa eskuratzeko, hala nola eginarazten dizkiedan atazetan.
Integratzailea (B1) 	Ikasleen informazio-alfabetatzea eta alfabetatze mediatikoa sustatzeko jarduerak egitea .	Ikasketa-jarduerak egiten ditut, non ikasleek teknologia digitalak erabiltzen baitituzte informazioa eskuratzeko. Ikasleei irakasten diet nola bilatu informazioa, nola ikusi ea fidagarria den, eta nola alderatu eta konbinatu iturri desberdinetako informazioa.
Aditua (B2) 	Estrategia pedagogiko multzo bat modu estrategikoan erabiltzea ikasleen informazio-alfabetatzea eta alfabetatze mediatikoa sustatzeko.	Hainbat estrategia pedagogiko erabiltzen ditut, ikasleei aukera emateko iturri desberdinak modu kritikoan alderatzeko eta modu esanguratsuan konbinatzeko. Ikasleei irakasten diet iturrien erreferentziak behar bezala nola egin.
Liderra (C1) 	Alderdi guztiak kontuan harturik eta modu kritikoan sustatzea informazio-alfabetatzea eta alfabetatze mediatikoa.	Modu kritikoan hausnartzen dut ea nire estrategia pedagogikoak zenbateraino diren egokiak ikasleen informazio-alfabetatzea eta alfabetatze mediatikoa sustatzeko, eta estrategiak horren arabera aldatzen ditut.
Aurrendaria (C2) 	Formatu berritzaileak erabiltzea ikasleen informazio-alfabetatzea eta alfabetatze mediatikoa sustatzeko.	Ikasleen informazio-alfabetatzea eta alfabetatze mediatikoa sustatzeko estrategia pedagogikoak berriro diseinatzen, berritzen eta haietaz hausnartzen eta hitz egiten dut.



Komunikazio eta lankidetzaren digitala

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak behartzen dituztenak tresna digitalak eraginkortasunez eta modu arduratsuan erabiltzera komunikaziorako, lankidetzarako eta partaidetza zibikorako.







Jarduerak

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak motibatzen eta behartzen dituztenak hau guztia egitera:

- ◆ Hainbat motatako teknologia digitalekin elkarrekintzan jardun.
- ◆ Testuinguru jakin baterako komunikazio-tresna egokiak zein diren ulertu.
- ◆ Datuak, informazioa eta eduki digitalak teknologia digital egokien bidez beste batzuekin partekatu.
- ◆ Erreferentziak egiten eta egiletza adierazten jakin.
- ◆ Gizartean parte hartu zerbitzu digital publikoen eta pribatuen bidez.
- ◆ Aukerak bilatu teknologia digital egokien bidez norbera ahalduntzeko eta gizartean parte hartzeko.
- ◆ Teknologia digitalak erabili lankidetzaren

prozesuetarako eta baliabideak eta ezagutza elkarlanean sortzeko.

- ◆ Jokabide-arauen eta ezagutza teknikoekin berri izan teknologia digitalak erabiltzean eta ingurune digitalean elkarrekintzan jardutean.
- ◆ Komunikazio-estrategiak hartzailaren arabera egokitu, eta ingurune digitalean kultura eta belaunaldi ugari daudela kontuan hartu.
- ◆ Identitate digital bat edo gehiago sortu eta kudeatu.
- ◆ Norberaren izen ona babestu.
- ◆ Norberak teknologia, ingurune eta zerbitzu desberdinen bidez sortzen dituen datuak kudeatu.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Estrategia gutxi erabiltzea ikasleen komunikazio eta lankidetzaren digitala sustatzeko.	Ez dut kontuan hartzen nola susta dezakedan ikasleen komunikazio eta lankidetzaren digitala, edo oso gutxitan.
Esploratzailea (A2) 	Ikasleak teknologia digitalak erabiltzera bultzatzea komunikatzeko eta elkarlanean jarduteko.	Ikasleak teknologia digitalak erabiltzera bultzatzen ditut ikaskideekin, irakasleekin, administrazioekin langileekin eta hirugarrengoeekin elkarrekin jarduteko.
Integratzailea (B1) 	Ikasleen komunikazio eta lankidetzaren digitala sustatzeko jarduerak egitea .	Ikasketa-jarduerak egiten ditut, non ikasleek teknologia digitalak erabiltzen baitituzte komunikatzeko. Ikasleak gidatzen ditut jokabide-arauak errespetatu dituzten, komunikazio-estrategiak eta -bideak egokiro hautatu dituzten eta ingurune digitaletako kultura- eta gizarte-dibertsitatea kontuan izan dezaten.
Aditua (B2) 	Estrategia pedagogiko multzo bat modu estrategikoan erabiltzea ikasleen komunikazio eta lankidetzaren digitala sustatzeko.	Hainbat estrategia pedagogiko erabiltzen ditut, non ikasleek teknologia digitalak erabiltzen baitituzte komunikatzeko eta lankidetzaren jarduteko. Ikasleak teknologia digitalak erabiltzera bultzatzen ditut eta laguntza ematen diet eztaba publikoetan parte har dezaten eta teknologia digitalak aktiboki eta kontzienteki erabili dituzten gizartearen parte hartzeko.
Liderra (C1) 	Alderdi guztiak kontuan harturik eta modu kritikoan sustatzea ikasleen komunikazio eta lankidetzaren digitala.	Atazak eta ikasketa-jarduerak txertatzen ditut, ikasleak behartzen dituztenak teknologia digitalak eraginkortasunez eta arduraz erabiltzera komunikatzeko, lankidetzaren jarduteko, elkarlanean ezagutza sortzeko eta gizartearen parte hartzeko. Modu kritikoan hausnartzen dut ea nire estrategia pedagogikoak zenbateraino diren egokiak ikasleen komunikazio eta lankidetzaren digitala sustatzeko, eta estrategiak horren arabera aldatzen ditut.
Aurrendaria (C2) 	Formatu berritzaileak erabiltzea ikasleen komunikazio eta lankidetzaren digitala sustatzeko.	Ikasleen komunikazio eta lankidetzaren digitala sustatzeko estrategia pedagogikoak berriro diseinatzen, berritzen eta haiez hausnartzen eta hitz egiten dut.









Eduki digitalak sortzea

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak behartzen dituztenak beren burua baliabide digitalen bidez adieraztera eta eduki digitala hainbat formatutan egokitu eta sortzea. Ikasleei irakastea copyrighta eta lizentziak nola aplikatzen diren eduki digitaletan, iturrien aipuak nola egiten diren eta lizentziak nola aplikatzen diren.

Jarduerak

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak motibatzen eta behartzen dituztenak hau guztia egitera:

- ◆ Eduki digitalak formatu desberdinetan sortu eta editatu.
- ◆ Beren burua baliabide digitalen bidez adierazi.
- ◆ Informazioa eta edukiak moldatu, taxutu, hobetu eta existitzen den ezagutza multzo batean txertatu.
- ◆ Eduki eta ezagutza berri, original eta aproposak sortu.
- ◆ Copyrighta eta lizentziak datuei, informazioari eta eduki digitaletan nola aplikatzen zaizkien ulertu.
- ◆ Jarraibide ulergarrien sekuentzia bat planifikatu eta garatu sistema informatiko baterako, problema jakin bat ebazteko edo ataza jakin bat egiteko.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Estrategia gutxi erabiltzea ikasleek eduki digitalak sor ditzatela sustatzeko.	Ez dut kontuan hartzen nola susta dezakedan ikasleek eduki digitalak sortzea, edo oso gutxitan.
Esploratzailea (A2) 	Ikasleak teknologia digitalak erabiltzera bultzatzea edukiak sortzeko.	Ikasleak beren burua teknologia digitalen bidez adieraztera bultzatzen ditut, hala nola testuak, irudiak eta bideoak sortuz.
Integratzailea (B1) 	Ikasleek eduki digitalak sor ditzatela sustatzeko jarduerak egitea .	Ikasketa-jarduerak egiten ditut, non ikasleek teknologia digitalak erabiltzen baitituzte eduki digitalak sortzeko, hala nola testu, argazki, irudi eta bideoak. Ikasleak beren lan digitalak argitaratzera eta partekatzea bultzatzen ditut.
Aditua (B2) 	Estrategia pedagogiko multzo bat modu estrategikoan erabiltzea ikasleek eduki digitalak sor ditzatela sustatzeko.	Hainbat motatako estrategia pedagogikoak erabiltzen ditut, ikasleei aukera emateko beren burua baliabide digitalen bidez adierazteko, hala nola wiki eta blogetan ekarpenak eginez eta eportfolioak erabiliz beren sormen-lan digitaletarako. Azalpenak ematen ditut ikasleek uler dezaten zertan dautzan copyrightaren eta lizentzien kontzeptuak eta nola berrerabili eduki digitalak egokiro.
Liderra (C1) 	Alderdi guztiak kontuan harturik eta modu kritikoan sustatzea ikasleek eduki digitalak sor ditzatela.	Plagioa hautematen eta haren aurka egiten dut, hala nola teknologia digitalak erabiliz. Modu kritikoan hausnartzen dut ea nire estrategia pedagogikoak zenbateraino diren egokiak ikasleen sormenezko adierazpen digitala sustatzeko, eta estrategiak horren arabera aldatzen ditut.
Aurrendaria (C2) 	Formatu berritzaileak erabiltzea ikasleek eduki digitalak sor ditzatela sustatzeko.	Ikasleak gidatzen ditut produktu digital konplexuak diseinatu, argitaratu eta baimentzeko, hala nola webguneak, blogak, jolasak eta aplikazioak sortzeko. Ikasleen adierazpen eta sormen digitala sustatzeko estrategia pedagogikoak berriro diseinatzen, berritzen eta haietaz hausnartzen eta hitz egiten dut.



Erabilera arduratsua

Neurriak hartzea ikasleen ongizate fisiko, psikologiko eta soziala bermatzeko, teknologia digitalak erabiltzean. Ikasleak ahalduz arriskuak kudeatu eta teknologia digitalak modu seguru eta arduratsuan erabil ditzaten.

Jarduerak







Ikasleei jarrera positiboa transmititzea teknologia digitalei buruz, eta teknologia digitalak sormenez eta modu kritikoan erabiltzera bultzatzea.


Ikasleak gaitzea, hau egin dezaten:

- ◆ Gailuak eta eduki digitalak babestu, eta ingurune digitaletako arrisku eta mehatxuak behar bezala ulertu.
- ◆ Segurtasun- eta babes-neurriak ulertu.
- ◆ Datu pertsonalak eta pribatutasuna babestu ingurune digitaletan.
- ◆ Informazio pertsonala nola erabili eta partekatu behar den ulertu, nork bere burua eta besteak kalteetatik babesteko gai izateko.
- ◆ Zerbitzu digitalek datu pertsonalen erabilerari buruzko politika pribatu bat dutela ulertu.
- ◆ Osasun-arriskuak eta ongizate fisiko eta psikologikoaren aurkako mehatxuak saihestu teknologia digitalak erabiltzean.
- ◆ Nork bere burua eta besteak babestu ingurune digitaletako balizko arriskuetatik (ziberbullyingetik, kasu).
- ◆ Teknologia digitalak gizarte-ongizaterako eta -inklusionarako baliabideak jabetu.
- ◆ Teknologia digitalek eta haien erabilerak ingurunean zer eragin duten jabetu.

Ikasleek ingurune digitaletan duten jokabidea ikuskatzea, haien ongizatea babesteko.

Berehala eta eraginkortasunez jokatzeko ikasleen ongizatea arriskuan dagoenean (ziberbullyinga gertatzen denean, kasu).

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Estrategia gutxi erabiltzea ikasleen ongizate digitala sustatzeko.	Jabetzen naiz teknologia digitalek modu positiboan eta negatiboan eragin diezaioketela ikasleen ongizateari.
Esploratzailea (A2) 	Ikasleak teknologia digitalak modu seguru eta arduratsuan erabiltzera bultzatzea .	<p>Ikasleak jabeazten ditut teknologia digitalek modu positiboan eta negatiboan eragin diezaioketela osasunari eta ongizateari, hala nola zoriontsu edo triste sentiarazten dituzten jokabideak (haienak edo besterenak) identifikatzera bultzatuz.</p> <p>Ikasleak jabeazten ditut Interneten irekitasunaren onurez eta eragozpenez.</p>
Integratzailea (B1) 	Neurriak ezartzea ikasleen ongizatea bermatzeko.	<p>Esperientzian oinarritutako aholku praktikoak ematen ditut pribatutasuna eta datuak babesteko moduei buruz (hala nola pasahitzak erabiliz eta sare sozialetako ezarpenak aldatuz).</p> <p>Ikasleei laguntzen diet beren identitate digitala babesten eta arrasto digitala kudeatzen.</p> <p>Ikasleei aholkuak ematen dizkiet (beren edo ikaskideen) jokabide desegokien eragina mugatzeko edo horren aurka egiteko neurri eraginkorrez.</p>
Aditua (B2) 	Ikasleei teknologia digitalak erabiltzeko laguntza pedagogikoa ematea, haien ongizatea bermatzeko.	<p>Estrategiak garatzen ditut ikasleen osasunari eta ongizateari kalte egiten dieten jokabideak (ziberbullyinga, kasu) prebenitzeko, identifikatzeko eta jokabide horiei erantzuteko.</p> <p>Ikasleak bultzatzen ditut teknologia digitalekiko jarrera positiboa izatera: badakite arriskuak eta mugak dituztela, baina orobat dakite horiek kudea ditzaketela onurak lortzeko.</p>
Liderra (C1) 	Modu kritikoan eta estrategikoan garatzea teknologia digitalen erabilera, ikasleek arduraz eta modu seguruan erabili ditzaten .	<p>Azalpenak ematen ditut ikasleek uler dezaten zer arrisku eta mehatxu dauden ingurune digitaletan (identitate-lapurreta, iruzurra, jazarpena eta phishinga, kasu) eta nola erreakzionatu egokiro.</p> <p>Modu kritikoan hausnartzen dut ea nire estrategia pedagogikoak zenbateraino diren egokiak ikasleen ongizate digitala sustatzeko, eta estrategiak horren arabera aldatzen ditut.</p>
Aurrendaria (C2) 	Metodologia berritzaileak garatzea ikasleek teknologia digitalak beren ongizaterako erabili ahal izatea sustatzeko.	Ikasleek teknologia digitalak beren ongizaterako erabili ahal izatea sustatzeko estrategia pedagogikoak berriro diseinatzen, berritzen eta haietaz hausnartzen eta hitz egiten dut.









Baliabide digitalen bidez arazoak konpontzea

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak behartzen dituztenak arazo teknikoak identifikatu eta konpontzera edo ezagutza teknologikoa sormenez beste egoera batzuetara transferitzera.

Jarduerak

Ikasteko jarduerak, atazak eta ebaluazioak txertatzea, ikasleak motibatzen eta behartzen dituztenak hau guztia egitera:

- ◆ Arazo teknikoak identifikatu gailuekin ibiltzean eta ingurune digitalak erabiltzean, eta horiek konpondu.
- ◆ Ingurune digitalak norberaren premietara egokitu eta pertsonalizatu.
- ◆ Ataza edo arazo bat ebazteko, teknologia digitalak eta balizko erantzun teknologikoak identifikatu, ebaluatu, hautatu eta erabili.
- ◆ Teknologia digitalak modu berritzailean erabili ezagutza sortzeko.
- ◆ Beren gaitasun digitala zer arlotan hobetu edo eguneratu behar duten ulertu.
- ◆ Besteei lagundu gaitasun digitala garatzen.
- ◆ Nork bere burua garatzeko aukerak bilatu, eta bilakaera digitalaren berri izan, eguneratuta egoteko.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Estrategia gutxi erabiltzea ikasleek baliabide digitalen bidez irtenbideak aurkitzeko duten gaitasuna sustatzeko.	Ez dut kontuan hartzen nola susta dezakedan ikasleek baliabide digitalen bidez irtenbideak aurkitzeko duten gaitasuna, edo oso gutxitan
Esploratzailea (A2) 	Ikasleak arazoak ebazteko teknologia digitalak erabiltzera bultzatzea .	Ikasleak saiatuz eta huts eginez arazo teknikoak konpontzera bultzatzen ditut. Ikasleak gaitasun digitala egoera berrietara transferitzera bultzatzen ditut.
Integratzailea (B1) 	Ikasleek baliabide digitalen bidez arazoak konpontzeko jarduerak egitea .	Ikasketa-jarduerak erabiltzen ditut, non ikasleek sormenez erabiltzen baitituzte teknologia digitalak, beren ezagutza teknikoak zabalduz. Ikasleak elkarri laguntzera bultzatzen ditut gaitasun digitala garatzeko.
Aditua (B2) 	Estrategia pedagogiko multzo bat modu estrategikoan erabiltzea ikasleek baliabide digitalen bidez arazoak konpontzea sustatzeko.	Hainbat estrategia pedagogiko erabiltzen ditut, ikasleak gai izan daitezen gaitasun digitala egoera eta testuinguru berrietan aplikatzeko. Ikasleak beren gaitasun digitalaren mugez hausnartzera bultzatzen ditut, eta gaitasun digitala are gehiago garatzeko estrategia egokiak identifikatzen laguntzen diet.
Liderra (C1) 	Alderdi guztiak kontuan harturik eta modu kritikoan sustatzea ikasleek baliabide digitalen bidez arazoak konpontzea.	Ikasleak prestatzen ditut arazo baten aurrean erantzun teknologiko desberdinak aurki ditzaten, onurak eta eragozpenak iker ditzaten, eta sormenez eta modu kritikoan irtenbide bat edo produktu berri bat aurki dezaten. Modu kritikoan hausnartzen dut ea nire estrategia pedagogikoak zenbateraino diren egokiak ikasleen gaitasun digitala sustatzeko eta estrategia digitalen errepertorioa zabaltzeko, eta nire metodoak horren arabera egokitzen ditut.
Aurrendaria (C2) 	Formatu berritzaileak erabiltzea ikasleek baliabide digitalen bidez arazoak konpon ditzatela sustatzeko.	Ikasleak prestatzen ditut gaitasun digitala ezohiko moduan aplika dezaten egoera berrietan eta sormena baliatuz irtenbide edo produktu berriak aurki ditzaten. Ikasleek baliabide digitalen bidez arazoak konpontzeko dituzten trebetasunak sustatzeko estrategia pedagogikoak berriro diseinatzen, berritzen eta haietaz hausnartzen eta hitz egiten dut.